

OSOKO BILKURA 2023-05-25

Organoa: Udal Plenoa
Izaera: Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2023-05-25
Ordua: Hasiera 18:30etan.
Bukaera 18:45etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Alzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Axier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Karmelo Guridi Gallastegi jauna (EH Bildu)

- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna
Kontuhartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez da bertaratu:

- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK

1. Onartzea, hala badagokio, 2023-04-27eko ohiko osoko bilkuraren akta, (4.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 2an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena ematea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 8an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta AFAGI elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea "Estimulazio Kognitiboko Tailerra" martxan jartzeko, ongizate informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.

7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko lankidetzaren hitzarmen eredu onartzea, zerbitzuak eta landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 17an.
8. Hala badagokio, presako gaiak.
9. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
10. 2023ko apirilaren 22tik 2023ko maiatzaren 18ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 578 zenbakitik 690 zenbakira.
11. 2023ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (11., 12 eta 13. saioak).
12. 2022ko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.
13. 2022ko ekintza planaren berri ematea.
14. 2022ko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.
15. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpeta dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

Behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak bilkura ireki dela adierazi du, eta gainera osatzen duten gaiak aztertu dira. Gai horiek osoko bilkura honi dagozkio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikuluaren arabera.

BILERA:

1.- Onartzea, hala badagokio, 2023-04-27eko ohiko osoko bilkuraren akta, (4.2022).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2023ko apirilaren 27ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal interes edo erabilera bereziki hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 2an.

Azaldu da proposamenean akats bat dagoela. Errenta sailak gaurko data duen email bidez Maria Elena Martinez Esperanza andreaki hobia ez dagokiola adierazi du. Horregatik, ogasun batzordeko irizpenean interesdun hori ezabatu behar da. Momentuan bertan akatsa zuzentzen da eta akatsa zuzenduta idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Udal interes edo erabilera bereziki hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak.

2023ko maiatzaren 2an egindako ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, ogasun batzordeko idazkaria eta kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

“6.- Interes bereziko obrak

Hainbat herritar eta erakunde eskatu dituzte beren eraikinetako obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, aurtengo Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes bereziki hartzea edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) Aurtengo Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapitulua 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Aipatu obraren inguruko txosten eta irizpenak erantzen dira.

c) Osoko Bilkuran obrak interes bereziki hartuko balira, Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren obrek beteko lituzke Oñatiko Udaleko aurtengo Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarietan jasotako baldintzak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

LAN BAIMENA LEIHOAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	Espedientea	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0019		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0030		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0031		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0038		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0036		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0043		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]				
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0053		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0055		Leihoak	25%

EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	Espedientea	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0048		Instalazio fotobol	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0050		Instalazio fotobol	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0056		Instalazio fotobol	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2023OTXI0058		Instalazio fotobol	95%

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

LAN BAIMENA LEIHOAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	Espedientea	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]		Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]		Leihoak	25%

			2023OTXI0043		Leihoak	25%
			2023OTXI0053		Leihoak	25%
			2023OTXI0055		Leihoak	25%

EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK

IZENA	NAN	HELBIDEA	Espedientea	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
			2023OTXI0048		Instalazio fotobol	95%
			2023OTXI0050		Instalazio fotobol	95%
			2023OTXI0056		Instalazio fotobol	95%
			2023OTXI0058		Instalazio fotobol	95

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra.

2023ko maiatzaren 16an egindako ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, ogasun batzordeko idazkariak eta kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

“3.- Interes bereziko obrak

eraberritze lanak egiteko baimena eskatu du. Aldi berean eskatu du, aurtengo Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) Aurtengo Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Aipatu obraren inguruko txosten eta irizpenak eransten dira.

c) Osoko Bilkuran obrak interes berezikotzat hartuko balira, Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren obrek beteko lituzkete Oñatiko Udaleko aurtengo Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobariatan jasotako baldintzak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea [REDACTED] eraberritze lanak. Hala balitz, %90eko hobaria aplikatuko litzaioke EIOZen.“

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea [REDACTED] eraberritze lanak. Hala balitz, %90eko hobaria aplikatuko litzaioke EIOZen.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Udalaren eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea.

2023ko maiatzaren 16an kirol informazio batzordean, aldeko irizpena jaso zuen honako proposamenak, kirol teknikariak, Oskar Carrascal Gonzalez jaunak, ziurtatzen duenez.

“Oñatiko Udalaren eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma Elkartearen arteko hitzarmena Kantoikrit Kriteriuma txirringularitza Kirol proba erreferentziazko pinoi-fijodun txirringularitzako kirol proba da, bai Oñatin, eta baita Euskadiko erkidegoan, eta haratago ere. Kirol proba, herriko talde bat dihardu urtez-urte antolatzen, urte osoan antolaketan murgilduta egoten da antolaketa zaila eta teknikoa baita. Izan ere, aipaturiko txirringularitza lasterketa talde horrek antolatuko ez balu ez litzateke kirol proba egingo. Horrela bada, kirol proba antolatu dezakeen herriko kirol elkarte bakarra dela esan dezakegu, ez baita ohiko txirringularitza lasterketa bat.

Horrela bada, Udalak eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma kirol elkarteak bilera egin dute joan den apirilean, eta bi entitateek bat egin dute kirol proba antolatzen jarraitzeko garrantziarekin, eta horretarako, eta antolakuntza kosteak merketzeko, kirol proba egonkortu eta lankidetzaren abiatu nahi dute.

Horrela bada, Udal kirol batzordeak onartu du:

LEHENA

Kantoikrit kriteriumaren antolaketa lankidetzaren hitzarmen baten bidez elkartearekin urte baterako lotzea, urtez-urte beste 3 urtez luzatu daitekeena, bi entitateek bat egiten badute horretan.

BIGARRENA

2023. urtean Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma elkarteari 2.750 €-ko dirulaguntza zuzena ematea onartzea. Hurrengo urteetarako, eta badagokio, gastu partida izenduna jasotzea Udal aurrekontu orokorretan.

HIRUGARRENA

Elkarteak jarduera egin ondoren zuriketa aurkeztu beharko du ordainketak jaso ahal izateko. Dirulaguntzaren zuriketa Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, Kirol Batzordearen proposamena ikusita.

BOSTGARRENA

lankidetzaren hitzarmena onartzearekin bat, dirulaguntza lehen zatiaren ordainketa egitea, hots, dirulaguntzaren %60^a: 1.650 € .

Partida zenbakia: 1 0700 481 341 00 04 2023 (283)

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.:”

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

5. Finantza-konpromisoak jasotzen dituzten hitzarmenek finantzen aldetik jasangarriak izan beharko dute, eta sinatzen dutenek gaitasuna izan beharko dute hitzarmenaren indarraldian beren gain hartutakoak finantzatzeko.

6. Sinatzaileek hitzematen dituzten finantza-ekarpenak ezingo dira izan hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastuak baino handiagoak.

7. Hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen badu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusitakoa bete beharko du.

8. Alderdiek adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak.

49. artikulua. Iraupena:

“h) Hitzarmenaren indarraldia, arau hauek kontuan hartuta:

1. Hitzarmenek iraupen jakin bat izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, salbu eta araudian epe luzeagoa aurreikusten bada.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmena sinatzen dutenek aho batez erabaki ahal izango dute beste lau urtez luzatzea edo iraungitzea.”

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

“1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.”

6

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak**, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) *Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.*”

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gaia aztertutik, eta kirol batzordearen aldeko irizpena izanik, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalaren eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientearen dagoen zirriborro dokumentuaren arabera.

Bigarrena.- Hitzarmen honek urteko iraupena izango du, eta beste 3 urte gehiago luzatu daiteke.

Hirugarrena.- Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea (2.750€) dagokion diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura eta baita hurrengo urteetarako dagokion egokitzapen gastua. Hurrengo urteetarako hitzarmenetik eratorritako betebeharrak erantzuteko behar den kreditua gorde eta gaitu beharko da, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Laugarrena.- Oñatiko kirol teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Bostgarrena.- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publikitate emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

Seigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena eta akordio honekin zerikusia duten beharrezko agiriak sinatzeko.

Bederatzigarrena.- Elkarrekin jarduerak egin ondoren zuriak aurkeztu beharko du ordainketak jasotzeko. Dirulaguntzaren zuriak Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, kirol batzordearen proposamena ikusita.

Hamargarrena.- Dirulaguntzaren lehen zatia ordaintzea, hots, dirulaguntzaren %60: 1.650 €.

Gaia aztertuta, eta kirol informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

7

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena ematea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 8an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamenduari buruzko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREK, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikariak, ziurtatzen du 2023ko maiatzaren 8ko datan Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

“Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen Ordenantza onartzea.

2023ko otsailaren 23ko Alkate Dekretuz onartu zen Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen ordenantza kontsulta publikora ateratzea.

Udaleko barne prozedurari jarraiki, 20 egun baliorduneko epea jarri zen kontsulta publikorako, martxoaren 18ra arte luzatzen zena.

Martxoaren 20ko partaidetza eta garapen komunitarioko teknikariaren parte hartzeari buruzko txostenak jasotzen du ez zela alegaziorik egon.

Hori dela eta, ordenantzaren testua pertsonal batzordetik pasatu da eta maiatzaren 8ko datan onartu.

Pertsonal eta Barne Antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, honako hau proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen Ordenantza onartzea.

Bigarrena.- Ordenantza horri dagokion tramiteak hastea.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta www.oñati.eus web orrian argitaratzea.”

Udal honentzat interesgarritzat jotzen da aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamenduari buruzko udal ordenantza onartzea.

Udaleko idazkariaren 26/2023 txostena, maiatzaren 19koa, dago espedientean.

Udalaren Osoko Bilkura da organo eskuduna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

Azaldutakoagatik, zerbitzuak batzorde Informatiboaren oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamenduari buruzko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, espedientean emandako idazketarekin.

Bigarrena.- Ordenantza hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean hogeita hamar egun balioduneko epean, Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, Udalaren webgunean argitaratuko da epe berdinean. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da akordioa, Udalbatzak berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

Hirugarrena.- Behin betiko onartu ondoren, arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean jarriko da indarrean.

Laugarrena.- Erabaki hau teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Bostgarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako dokumentuak izenpetu eta sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta AFAGI elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea “Estimulazio Kognitiboko Tailerra” martxan jartzeko, ongizate informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Udalaren eta AFAGI elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea “Estimulazio Kognitiboko Tailerra” martxan jartzeko.

ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikariak, ziurtatzen du 2023ko maiatzaren 16ko dataz Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

ESP-ZKIA: 2023ZDIZ0014

AFAGI Alzheimer Gipuzkoa elkarteari zuzendutako dirulaguntza izendunaren hitzarmena

Oñatiko Udalak eta AFAGI elkarteak Oñatira hurbildu nahi dituzte elkarteak beste udalerrri batzuetan eskaintzen dituen jarduerak: aholkularitza, arreta psikosoziala eta estimulazio kognitiboko tailerrak, Alzheimer gaixotasuna edo beste demenzia batzuk hasierako fasean dituzten pertsonentzat.

AFAGI irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Alzheimerra edo beste demenzia batzuk dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, baita haien senide zaintzaileena ere.

Erakundearen helburuak:

a) Alzheimerra edo beste demenzia dutenen eskubideei buruzko dibulgazioa eta sentsibilizazioa, haien autonomia eta pertsonan zentratutako arreta integraleko ereduak sustatu eta bultzatzea.

b) Alzheimer gaixotasuna duten pertsonen edo haien senitarteko eta zaintzaileen premietara egokitutako hornidura eta zerbitzuak sor daitezela sustatzea.

c) Alzheimer gaixotasuna edo bestelako dementsia duten pertsonei eta haien senitartekoei laguntza psikologikoa, morala eta beste edonolakoa eskaintzea, ahalik eta bizi-kalitaterik gorena izan dezaten.

d) Alzheimer gaixotasuna edo bestelako dementsia duten pertsonei eta haien senitartekoei arlo legal, soziologiko, ekonomiko eta asistentzialetako aholkuak ematea.

e) Prestakuntza-programak sustatu eta garatzea, bereziki, Alzheimer edo bestelako dementsia duten pertsonentzat eta haien senitarteko eta zaintzaile, boluntario eta patologia horietan inplikaturako profesionalentzat, bere kabuz edo interes eta helburu partekatuak dituzten beste erakunde batzuekin elkarlanean.

f) Gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko terapiak eta familiei atsedena emateko jarduerak sustatu eta garatzea, eta herritar guztien eskura Alzheimerrarekin edo bestelako dementsiekin lotutako dibulgazio-proiektuak jartzea, herritarrak problematika horren inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin.

g) Gaixotasun honen diagnostiko posiblearekin eta terapiarekin zerikusia duen guztia hedabideetan sustatu eta zabaltzea, laguntza egokia ahalbidetzeko helburuarekin.

h) Gaixotasunaren intzidentziari bilakaera terapeutikoari eta etiologia posibleari buruzko azterlanak bultzatzea.

i) Dementsia alorreko ikerketa eta berrikuntza medikoa bultzatzen laguntzea, inplikaturako agente guztiekin elkarlanean.

j) Dementsiaren alorreko ikerketa eta berrikuntza soziala bultzatzen laguntzea inplikaturako agente guztiekin elkarlanean, eta, noizbehinka, elkarlearen xedeetarako estrategikotzat jotako proiektuen kudeaketa parte hartzeko aukera aintzat hartuz.

k) Alzheimerraren edo bestelako dementsien ondorioak jasaten dituzten familien eskubideen inguruan zabalkundea eta sentsibilizazioa sustatu eta bultzatzea.

l) Gaixotasuna aztertzen duten erakunde eta elkarrekin harremanak mantentzea, arlo horretan gertzen diren aurrerapen zientifikoetan egunean egoteko eta, horrela, Alzheimerra edo bestelako dementsia duten senitartekoei horren berri emateko.

m) Belaunaldien arteko elkartasuna eta lankidetzeta sortzailerako zeharkako lanerako dinamikak garatzea.

n) Genero-berdintasunerako eta iragana konpontzeko zeharkako lan-dinamikak garatzea eremu horretan.

Jardueren zerrenda hori adierazpenezkoa baino ez da, eta ez da mugatzailea. Kudeaketa Batzordeak elkarlearen helburuak lortzeko egokitzat jotzen dituen beste jarduera batzuk egitea erabaki ahal izango du uneoro.

Bere helburuak betetzeko, elkarleak lankidetzeta-akordioak egin ahal izango ditu estatutu hauetan ezarritako helburuekin zerikusia duten pertsona fisiko edo juridikoekin eta erakunde publiko zein pribatuekin.

Bere helburuak garatzeko, boluntarioek elkarlearen jardueretan parte hartzea sustatuko da.

AFAGI-k proiektuaren garapenean parte hartzeko interesa honako elementu hauetan oinarritzen da:

- Alzheimer gaixotasunaren eta beste dementsia batzuen arloan duen inplikazioa eta ibilbidea.
- Alzheimerra edo beste dementsia batzuk dituzten pertsonekiko hurbiltasuna eta pertsona horiei eta haien familiei laguntza emateko interesa izatea.
- Gipuzkoako proiektuen garapenean parte hartzeko prest egotea.
- Proiektua garatu dezaketen teknikarien eskuragarritasuna.

Aurreko guztiaren arabera, Oñatiko Udala eta AFAGI elkarleak, dirulaguntzak izaduna izateko hitzarmena formalizatu behar dela uste dute, honako klausula hauen arabera:

- ✓ AFAGI elkarleak Oñatin “Estimulazio Kognitiboko Proiektuan” modu aktiboan parte hartu dezan dirulaguntza emateko.
- ✓ **Erreferentzia juridikoak:**
 - Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa. eta Lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa.
 - Oñatiko Udaleko 2023-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.
 - 2009ko Oñatiko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (GAO 59, 2009-03-30)

✓ **Hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea da AFAGI elkarleak, beste erakunde batzuekin batera, Oñatiko Udalak sustatutako ‘Oñati 2023-2025’ proiektuaren garapenean lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko baldintzak arautzea.

AFAGI -k konpromisoa hartzen du proiektua garatzen laguntzeko, horretarako izendatutako gaitasun tekniko eta esperientzia nahikoa duten langileen bitartez.

Lankidetzaren eremu hauetan garatuko da:

- Proiektuaren komunikazioa

Fase honetan erakunde laguntzaileen komunikazio-estrategia bat landuko dute, beren jardun-eremuari dagokionez. Estrategia horrek eremuaren edo gaixotasunaren problematika eta egoera deskribatuko ditu. Ekintza horien helburua proiektuaren faseak eta ezarpen-faseak ezagutaraztea izango da. Txosten horietan, eragile/erakunde horiek egindako lanen edo azterlanen emaitzak jasoko dira, bai eta egoeraren diagnostiko egokia egiteko interesgarriak diren erreferentziak ere.

Jarduera honen helburua da Alzheimer gaixotasunaren eta beste dementzia batzuen eraginari, dauden baliabideei eta Oñatiko Udalaren eremuan Arreta Psikosoziako ekintza bat eta Estimulazio Kognitiboko Tailerra martxan jartzea ahalbidetuko duten gainerako alderdiei buruzko komunikazio orokorra egitea da.

Oinarri horren gainean diagnostiko bat egingo da, eta esku-hartzen duten eragile guztiekin alderatuko da.

- Arreta Psikosoziala

Parte-hartze mailak 1go fasea (Arreta Psikosoziala) ezartzeko fasera eramango ditu Alzheimer gaixotasuna edo beste Dementia batzuk dituzten pertsonen gaixoak eta senideak. Fase horretan, jarduteko proposamenak jasoko dira. Fase horrek HIRU HILABETE behar ditu, gutxienez, hasten denetik.

- Estimulazio Kognitiboko Tailerra

Arreta Psikosozialaren faseko diagnostikoa onartu ondoren, Estimulazio Kognitiboko talde ekintza martxan jarriko da.

Gaixoen eta senideen parte-hartze eta inplikazio maila erabakigarria izango da proiektuaren helburuak lortzeko. Hala ere, proiektuaren ebaluazioak ekintzen iraupena eta kalitatea hartuko ditu kontuan.

Esparru horiek gerora egokitu ahal izango lirake, proiektuaren premien arabera.

Oñatiko Udalak eta AFAGIk aldi-aldi ebaluatuko dute jardueren betetze-maila, bai eta laguntza ekonomikorako hitzarmenaren betetze-maila ere.

✓ Indarraldia

Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta proiektua amaitu arte iraungo du. Hala ere, lan horiek amaituta egon beharko dute **2026ko uztailaren 31rako**.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoi izango dira:

- Bi sinatzaileek hala erabakitzea.
- Aldeetako batek hemen deskribatutako klausulen edukiak betetzen ez dituzten.

✓ Oñatiko Udalaren dirulaguntza ekonomikoa

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko aukera aurreikusten du. Beraien artean dirulaguntza izendunak dira aurrekontuetan izenez jasota badaude eta kontzesioa arautuko duten hitzarmenen bidez egiten bada.

Indarrean dagoen toki legedian zein dirulaguntzen Legean, erakunde pribatuekin elkarlanerako hitzarmenaren figura aurreikusten da, giza intereseko jarduerak sustatzeko xedearekin.

Oñatiko Udalak goian aipatutakoa bermatuta izateko, 2023ko Ongizate Zerbitzu Saileko udal aurrekontuetan izendatuta dago "1.0500.481.231.01.04 2023 AFAGI elkarteari dirulaguntza" diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kontura

Oñatiko Udalak 38.886 euroko dirulaguntza emango dio Afagi-ri, elkarteak Oñatin egingo duen jarduera-proiektuak finantzatzeko, eta ordainketa 1. klausulan deskribatutako faseetan banatuko da, honela:

1. fasea - Ekintzen jardueren hasieran, 2023ko irailean: 12.962€
2. fasea - Ekintzen bigarren zatian, 2024ko irailean: 12.962€
3. fasea - Ekintzen hirugarren zatian, 2025eko irailean: 12.962€

✓ Oñatiko udalaren dirulaguntza era honetan **ordainduko da**:

- Fase bakoitzaren hasieran, dirulaguntzaren %60, hau da, 7.777,20 €,.
- Dirulaguntzaren gainontzeko zenbatekoa (%40) fasearen amaieran, memoria eta zuriketa ekonomikoa aurkeztu eta udalak onarpena emandakoan.

Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko da:

- Gastu bakoitzaren fakturaren kopia (elkartearen izenean) eta ordainketa ziurtagiria.

✓ Izaera

Hitzarmen honen xede den lankidetzaren erakunde sinatzaileen nortasunaren irudi korporatiboa erabilitako tresna eta baliabide material guztietan egotea bermatuz egin beharko da, hitzarmen honen bidez hartutako konpromisoak betez. Horretarako, Oñatiko Udalak beharrezko materialak emango dizkie.

✓ Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera, AFAGI izango da lankidetzaren hitzarmen honen ondorioz biltzen diren datuen arduraduna.

Lankidetzaren esparruan, izaera pertsonaleko datuak Oñatiko Udalari eman ahal izango zaizkie. Oñatiko Udalak datuak babesteko araudiaren arabera tratatu beharko ditu, eta datuak ezingo ditu erabili hitzarmen honetan zehaztu ez den beste helburu baterako.

Hori guztia kontuan izanik, Oñatiko Udalaren eta AFAGI Alzheimer Gipuzkoa elkartearen arteko hitzarmena sinatzea proposatzen dio Ongizate Zerbitzu Batzordeak Udal Osoko Bilkurari:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.art. 2 a artikulua diona betetzen du, ekarpen izenduna baita. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. *Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:*

22.3 artikulua: *“Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:*

A) *Estatuaren, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundearen aurrekontu orokorretan izendun gisa aurreikusitakoak, hitzarmenetan eta diru-laguntza horiek arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.*

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren ondorioetarako, Estatuko Aurrekontu Orokorretan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntza izango da gutxienez aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuko gastu-egoeran zehaztuta dituen. Diru-laguntza horien xedea berariaz zehaztu beharko da dagokion lankidetzaren hitzarmenean edo diru-laguntza emateko ebazpenean; nolahi ere, dagokion aurrekontu-kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin bat etorri beharko du.”

28.1 artikulua: *“Diru-laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, diru-laguntza horiek bideratzeko hitzarmenek ezarritakoak dira lege honetan xedatutakoaren arabera aplikatu beharreko baldintzak eta konpromisoak.*

Hitzarmenak izango dira Estatuaren Aurrekontu Orokorretan edo toki-korporazioen aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna, araudi erregulatuak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe.”

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

34.3 artikulua: *“Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

-48. artikulua.

“7. Hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen duenean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplika daitekeen autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusitakoa bete beharko du.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta Ongizate Zerbitzuak batzordearen aldeko irizpena izanik, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalaren eta AFAGI Gipuzkoako Alzheimer elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea eta dirulaguntza izenduna onartzea. Diru-laguntza hori 2023ko aurrekontu orokorrean dago jasota.

Bigarrena.- 2023rako 12.962€-ko gastua onartzea, 1.0500.481.231.01.04 2023 AFAGI elkarteari dirulaguntza diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kontura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Hirugarrena.- 2023ko dirulaguntzaren lehen zatiaren (%60) ordainketa onartzea.

Laugarrena.- Diru laguntza izendun hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Bostgarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Seigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta ongizate informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko lankidetzaren hitzarmen eredia onartzea, zerbitzuak eta landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 17an.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko lankidetzaren hitzarmen eredia onartzea.

2023ko maiatzaren 17an zerbitzuak eta landa garapen informazio batzordean, aldeko irizpena jaso zuen honako proposamenak, nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikariak, Aitor Gerenabarrena Osa jaunak, ziurtatzen duenez.

“Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko hitzarmen eredia (975/esp)

2023ko martxoaren 30ean Udal Osoko Bilkurak auzo-taxi programa arautuko duten oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdi publikoa egitea onartu zituen (2023/04/19 GAO). Helburua da garraio publikoko zerbitzu erregularra erabiltzerik ez duten landa-auzoetako biztanleei udalerrri barruan bidaiatzeko taxi zerbitzua diruz laguntzea.

Onartutako oinarrien 7. artikulua xedatutakoaren arabera “dirulaguntza kudeatuko da hitzarmena sinatu duten taxi-gidarien lankidetzarekin, honetarako Oñatiko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, eta oinarri hauetan jasotako berezitasunei kalterik egin gabe”.

Hortaz, programarekin aurrera egin ahal izateko, bertan parte hartu nahi duten taxilariekin hitzarmena sinatu beharra dago. Funtsean, hitzarmenak auzo-taxi programa arautuko duten oinarri arautzaileak xedatutakoa beteko dela jasotzen du, besteak beste, diruz lagunduko diren bidaien xehetasunak, laguntzaren zenbatekoa eta kudeaketa.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko honako erabakiak onar ditzala eskatu dio:

Lehenengoa: Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko hitzarmen eredia onartzea.

Bigarrena: egun Oñatin taxi-lizentzia duten taxilarietako auzo-taxi programan parte-hartzeko gonbitea egitea. Bide horretan, 10 eguneko epea ematea beraien interesa azaldu dezaten.

Hirugarrena: interesa azaltzen duten taxilarietako hitzarmena sinatzea”

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

5. Finantza-konpromisoak jasotzen dituzten hitzarmenek finantzen aldetik jasangarriak izan beharko dute, eta sinatzen dutenek gaitasuna izan beharko dute hitzarmenaren indarraldian beren gain hartutakoak finantzatzeko.

6. Sinatzaileek hitzematzen dituzten finantza-ekarpenak ezingo dira izan hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastuak baino handiagoak.

7. Hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen badu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala bada, aplikatzea den autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusitakoa bete beharko du.

8. Alderdiak adostasuna eman behar dute hitzarmenak.

49. artikulua. Iraupena:

“h) Hitzarmenaren indarraldia, arau hauek kontuan hartuta:

1. Hitzarmenek iraupen jakin bat izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, salbu eta araudian epe luzeagoa aurreikusten bada.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmena sinatzen dutenek aho batez erabaki ahal izango dute beste lau urtez luzatzea edo iraungitzea.”

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

“1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.”

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak**, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalararen Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gaia azterturik, eta zerbitzuak eta landa garapen batzordearen aldeko irizpena izanik, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko hitzarmen eredua onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dagoen zirriborro dokumentuaren arabera.

Bigarrena.- Hitzarmen honek auzo-taxi programaren iraupen bera izango du.

Hirugarrena.- Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea dagokion diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura eta baita hurrengo urteetarako dagokion egokitzapen gastua. Hurrengo urteetarako hitzarmenetik eratorritako betebeharrei erantzuteko behar den kreditua gorde eta gaitu beharko da, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Laugarrena.- Oñatiko nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Bostgarrena.- Egun Oñatin taxi-lizentzia duten taxilarietako auzo-taxi programan parte-hartzeko gonbitea egitea eta 10 eguneko epea ematea beraien interesa azaldu dezaten.

Seigarrena.- Interesa azaltzen duten taxilarietako hitzarmena sinatzea.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena eta akordio honekin zerikusia duten beharrezko agiriak sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta zerbitzuak eta landa garapen informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

14

8.- Hala badagokio, presako gaiak.

Alkatearen eskariz, presazko 4 gai gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaiak arrazoitzea (deialdia egiterakoan ez zeuden oraindik prest eta premiazkoa da gai horien erabakia hartzea eta legealdiko azken osoko bilkura baita) eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hauek zerrendan sartzeko erabaki da 16 boto aldekoekin (10 EH BILDU + 6 EAJ).

8.1.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pake Leku elkarteak 2023ko ekintzetarako dirulaguntzaren eskaera (zuzena) onartzea, ongizate informazio batzordean diktaminatua 2023ko apirilaren 25ean.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Pake Leku elkarteak 2023ko ekintzetarako dirulaguntzaren eskaera (zuzena) onartzea.

ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikariak, ziurtatzen du 2023ko apirilaren 25eko dataz Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

Esp. Zb.: 2023ZDIZ0009

Pake Leku elkarteak 2023ko ekintzetarako dirulaguntzen eskaera

Beatriz Arana Arabaolaza andreak, Pake Leku Jubilatua elkartearen izenean, ekintzen aurrekontua aurkeztu du, 2023 urteko ekintzen proposamena. Horrez gain dirulaguntza eskera ete beraien gogoetak azaldu dituzte.

Pake Leku elkarteak azken urteetan ekintzetarako 5.100€ inguruko dirulaguntza jaso du, horren barnean Jubilatuen eguneko gastuak. Horrez gain, Udalak beste hainbat gastu ordaintzen ditu, besteak beste, eraikinaren mantentze-gastuak, inbertsioak (2022. urtean eraikinaren teilatu eta isolamendu lanak egin dira 36.000€ gutxi gora behera)

2023. urterako helburu eta ekintza hauek aurkeztu dituzte:

Helburuak:

- Elkarrekin dinamikoaren irudia indartzea Oñati mailan
- Adineko pertsonen onarpena sustatzea
- Belaunaldien arteko lankidetzak
- Bizipen, esperientziak eta informazio berriak transmititzea
- Tokiko elkarten arteko harremanak bultzatzea
- Egungo jarduerak sustatzea eta beste jarduerak berri batzuk garatzea, eskariaren arabera.

Ekintzak:

- Tailerrak: Solfeoa, abesbatza, antzerkia, euskararekiko mintza praktika eta literatura taldea, Yoga, memoria, marrazketa, orratz lanak, puntua, bitxiak, kajeroak, mugikorak...
- Hitzaldiak: La vejez, Setas, Iparraldea, Korpusak....
- Euskal Herria eta "Oñati ezagutzen" irteerak
- Emanaldiak: antzerkiak, abesbatza
- Ospakizunak: astero Bingoa, Ongi etorri udaberria astea, Jubilatuen astea (Txokolatada, omenaldia eta luntxa

Urte amaierako jarduerak berri proposamenak:

- Pake leku saria
- Bazkideen astea
- Kantu eta bertso bazkaria
- Musika irteerak: opera, Euskadiko Orkestra, Euskal kantari baten kontzertua....
- Folklore, antzerkia, zinemaldia.. irteera: Iparraldeko pastorala, maskarada, Arriaga, Victoria Eugenia, Euskalduna...

Diru-kopururen aldetik, gastuak eta diru-sarrerak aurkeztu dituzte, guztia 10.455€-ko eskaera egin dute.

Gastuen artean, ekintzetako gastuez gain, elkarrekin izan dituen beste hainbat gastu barne daude, hain zuzen, fotokopiagailua berriaren erosketa, aseguruak, telefonoa.... Horiek guztiak 21.820€-koak dira.

15

Diru-sarreraren aldetik honako hauek agertzen dira: 85 urtetik beherako bazkideen kuotak, antzerkiko eta jubilatuen asteko tiketak. Horiek guztiak 11.365€-koak dira.

Gastuak- sarrerak: 10.455€-ko defizita

Oñatiko Gizarte-zerbitzuen iritziz, Pake Leku elkarteak da, herriko eremu horretan, aipaturiko ekintza-programa hori aurrera eramanez dezakeen erakunde bakarra. Gizarte Zerbitzuen ustez, elkartearen jarduerak interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa du, eta horren arabera dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango lirateke (38/2003 Legearen 22-2.art.)

Horrenbestez, goian aipaturiko guztia kontuan izanik, Ongizate zerbitzu batzordeak Udala Osoko Bilkurari proposatzen dio:

- Aurreko urtean emandako laguntzari HEH-ko KPlaren igoera aplikatzea (2022ko HEH-ko KPlak %5,63 litzateke). Hori horrela, 5.433,46€-ko dirulaguntza onartzea 2023ko ekintzetarako (5.143,86€+ % 5,63)
- Orain dirulaguntzaren %60 ordainduko litzateke (3.260,07€), diru-kopuru osoa ordaintzeko, baldintza hauek bete behar diren dute, ekintzen txostenean gastuak (elkarrekin izenean fakturak) eta sarrerak (erabiltzaileen ekarpenak, dirulaguntzak..) adierazita.
- Partida zenbakia: 1.500.481.231.00.08 2023(174) diru-latalaren eta bre lotespen-mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko ustean.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikuluko hauek:

22.3 artikulua: "Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, eta Ongizate Zerbitzu Batzordearen onetsiarekin, Udal Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Pake Leku elkarteari diru-laguntza zuzena ematea onartzea. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2023ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

BIGARRENA.- 5.433,46 euroko dirulaguntza onartzea, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

HIRUGARRENA.- Orain dirulaguntzaren %60 ordainduko litzateke (3.260,07€), diru-kopuru osoa ordaintzeko, baldintza hauek bete beharko dute, ekintzen txostenean gastuak (elkartearen izenean fakturak) eta sarrerak (erabiltzaileen ekarpenak, dirulaguntzak..) adierazita.

LAUGARRENA.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hau interesdunei, kontu-hartzaileari, eta teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, ongizate informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8.2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lagun Leku Elkarateak egindako dirulaguntzaren eskaera (zuzena) onartzea, ongizate Informazio Batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 25ean.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Lagun Leku Elkarateak egindako dirulaguntzaren eskaera (zuzena) onartzea.

ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikariak, ziurtatzen du 2023ko maiatzaren 25eko dataz Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

Esp. Zb.: 2023ZDIZ0016

Lagun Leku Elkarateak egindako dirulaguntza eskaera:

Marilo Unzurrunzaga Posadak, Lagun Leku Jubilatuta elkartearen izenean, 2023. urteko ekintzen aurrekontua aurkeztu du. Aurrekontu horretan hainbat gastu aurreikusten dira:

Aurrekontuan gastu hauek aurreikusten dira:

- Hainbat ekintza: San Blas, Emakumeen, San Juan Eguna (lore-sortak), Udako Jaia, Arantzazura irteera, perretxikoen erakusketa, gaztaina-jana.

- Memoria tailerrak, hitzaldiak, argazkien albumak, mahai jokoak, lehiaketetarako sariak
- Asegurua

Aurrekontua guztira: 3.425,14€

Aurten, bestalde, ontzi-garbigailua erosteko dirulaguntza eskatzen dute. Horren aurrekontua: 1.100€+ BEZa.

Guztira: 4.756,14€

Lagun Leku elkarteak, 2020. urtera arte, 4.000€ inguruko dirulaguntza jaso izan du. Lehenengo ordainketan %60 ordaindu izan zaio, eta zurieta egin ondoren geratzen den zatia.

Azken urteetan, COVID-19 dela-eta, ekintzak murriztu dituzte. 2022an ere hainbat ekintza ezin izan dute aurrera eramane.

Oñatiko Gizarte-zerbitzuen iritziz, inguru horretan ekintza horiek egin ditzakeen erakunde bakarra Lagun Leku elkarte da, azken urteotan lan horretan dabilen elkarte. Eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa kontuan hartuta, dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira salbuespen gisa (38/2003 Legearen 22-2.art.)

Horrenbestez, goian aipatutako guztia kontuan izanik, Ongizate Zerbitzuen Batzordeak Udal Osoko Bilkurari proposatzen dio:

- Aurkeztutako aurrekontuaren %60ko dirulaguntza orain ematea: 2.853,68 €.
- Diru-kopuru osoa ordaintzeko, baldintza hauek bete beharko direla adieraztea:
 - Zerbitzuaren likidazioa aurkeztu beharko dute, ekintzen txostenean gastuak (elkartearen izenean dauden fakturak) eta sarrerak (erabiltzaileen ekarpenak, dirulaguntzak...) adierazita.

Partida zenbakia: 1.0500.481.231.00.08 2023(174).”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

17

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagirak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jardura, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, eta Ongizate Zerbitzu Batzordearen onetsiarekin, Udal Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Lagun Leku elkarteari dirulaguntza zuzena ematea onartzea. Dirulaguntza hori Oñatiko Udalaren 2023ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

Bigarrena.- 4.756,14 euroko dirulaguntza onartzea, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Hirugarrena.- Orain dirulaguntzaren %60 ordainduko litzateke (2.853,68€), diru-kopuru osoa ordaintzeko, baldintza hauek bete beharko dute, ekintzen txostenean gastuak (elkartearen izenean fakturak) eta sarrerak (erabiltzaileen ekarpenak, dirulaguntzak..) adierazita. Betiere, kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza emateko ebazpena emateko unean.

Laugarrena.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau interesdunei, kontu-hartzaileari, eta teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta ongizate informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8.3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022. urteko ondasunen inbentarioa eguneratzea.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du:

Gaia: 2022. urteko ondasunen inbentarioa eguneratzea.

I. 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, **32.1 artikulua** dio: *“Administrazio publikoak behartuta daude beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa egitera, eta behar besteko zehaztasunez jaso beharko dituzte ondasun eta eskubide horiek identifikatzeko behar diren aipamenak, bai eta ondasun eta eskubide horien egoera juridikoa eta xede edo erabilera adierazteko behar direnak ere.”*

Gainera lege horren **36.1 artikulua** honakoa arautzen du: *“Administrazio publikoek dagozkien erregistroetan inskribatu behar dituzte beren ondareko ondasunak eta eskubideak, herri-jabariak edo ondarekoak izan, inskribatzeko modukoak badira, bai eta erregistro horietara sarrera izan dezaketen haiei buruzko egintza eta kontratu guztiak ere. Hala ere, inskripzioa aukerakoa izango da administrazio publikoentzat, hipoteka-legeriaren arabera inskriba daitezkeen errentamenduen kasuan.”*

II. 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen dueña, bere **86. Artikulua** honakoa arautzen du: *“Toki-erakundeak behartuta daude dagozkien ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratua eratzera. Inbentario horren kopia bat Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioei bidaliko zaie, eta urtero zuzenduko da, korporazioa berritzen den bakoitzean egiaztatuz.”*

III. 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen dueña, honakoa xedatzen du:

17.1 artikulua: *“Toki-korporazioak behartuta daude beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitera, edozein dela ere ondasun eta eskubide horien izaera edo eskuratzeko modua.”*

Inbentarioaren edukiari dagokionez, hau dio **18. artikulua**:

“Inbentarioan bereizita jasoko dira, izaeraren arabera, eta epigrafe hauen arabera multzokatuko dira:

1. Higiezinak.
2. Eskubide errealak.
3. Higigarri historikoak, artistikoak edo balio ekonomiko handikoak.
4. Korporazioaren balore higigarri, kreditu eta eskubide pertsonalak.
5. Ibilgailuak.
6. Azienda.
7. Aurreko enuntziatuetan sartzen ez diren higigarriak.
8. Ondasun eta eskubide itzulgarriak.”

33. artikulua:

“1. Inbentarioaren zuzenketa urtero egingo da, eta bertan jasoko dira urte horretan ondasun eta eskubideek izan dituzten gorabehera guztiak.”

2. Egiaztapena egingo da korporazioa berritzen denean, eta emaitza dokumentuaren amaieran jasoko da; hala ere, akta gehigarria egin ahal izango da, irteten diren kideentzat eta, dagokionean, sartzen direnentzat sor daitezkeen erantzukizunak mugatzeko.”

34. artikulua:

“Toki-korporazioko osoko bilkura izango da organo eskuduna dagoeneko eratuta dagoen inbentarioa onartzeko, eguneratzeko eta egiaztatzeko.”

35. artikulua:

“Inbentario eta balantzeen liburuan, toki-erakundearen ondasun, eskubide eta akzioak eta horien aldaketak jasoko dira urtero, bai eta aktiboaren eta pasiboaren egoera ere, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko benetako ondarea zehazteko.”

73. artikulua:

“Toki-korporazioek ezin izango diete amore eman euren ondarea osatzen duten jabariari eta gainerako eskubide errealei eragiten dieten demanda judizialei.”

IV. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, bere 68. Artikuluan honakoa arautzen da:

“1. Toki-erakundeek beren ondasunak eta eskubideak defendatzeko behar diren ekintzak egiteko betebeharra dute.
2. Eskubide zibil eta politiko guztiak dituen edozein herritar eskatu ahal izango dio erakunde interesdunari eskubide horiek egikaritzea. Errekerimendu horren berri emango zaie akzioen eragina jasan dezaketenei, eta errekerimendu horrek hogeita hamar egun baliodunez etengo du akzioak egikaritzeko epea.”

VI. Sastein enpresak, 2023ko maiatzaren 23an igorri du Oñatiko Udaleko inbentarioaren eguneratzea eta balorazioa eta mugimenduak, 2022/12/31ko datara itxita. Laburpena hau izango litzateke:

Enpresak, bere lanketan inbentarioan alta (3.092.086,28 balio) eta baja (164.483,97 balioa), bere balioarekin, eman behar diren ondasunak zehazten ditu.

Bere osotasunean, 2022. urteko Oñatiko Udalaren ondarea osatzen duten jabetzen balioa hau izango litzateke:

BERRIA JARTZEAREN KOSTUA: 253.478.590,10 €
MERKATUKO BALIO ERREALA: 149.312.550,59 €

19

Laburturta hauek dira balioak:

- 0. ERABILERA-LAGAPENEAN DAUDEN ERAIKINAK 0,00
- 1. HIGIEZINAK 133.147.847,38
- 2. ESKUBIDE ERREALAK 3.024.560,54
- 3. ONDASUN HISTORIKOAK 463.395,71
- 4. BALORE HIGIGARRIAK 5.777.483,32
- 5. IBILGAILUAK 634.444,90
- 6. MUGITU DAITEZKENAK 0,00
- 7. HIGIKORRAK 4.002.665,35
- 8. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK 2.262.153,40

Honako hau proposatzen diot osoko bilkurari:

Lehenengoa.- Ondasunen inbentarioa eguneratzea, Sastein enpresaren 2023/05/23ko txostenean proposatutako moduan.

Bigarrena.- Eguneraketa hauen akordioa Eusko Jaurlaritza eta Estatuko Administrazioari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau idazkaritza sailari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8.4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Badihardugu Euskara Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea dirulaguntza zuzena bideratzeko, “Ingo Xonau!” eta “Oñatiera ikasgelan” proiektuak garatzeko, euskara-hezkuntza informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 25ean.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Oñatiko Udalaren eta Badihardugu Euskara Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea dirulaguntza zuzena bideratzeko, “Ingo Xonau!” eta “Oñatiera ikasgelan” proiektuak garatzeko.

2023ko maiatzaren 23an egindako euskara-hezkuntza batzorde informatiboan aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, batzordeko idazkariak eta euskara teknikariak, Xabier Zabaleta Etxabek, ziurtatzen duenez.

“Ingo Xonau! egitasmoa garatzeko, Udalaren eta Badihardugu elkartearen arteko hitzarmena.

Oñatiko euskara (lagunarteko hizkera eta hitanoa –emakumeei zuzendutakoa bereziki–) jasotzea, eta erabilera sustatzea eta areagotzea da “Ingo xonau!” egitasmoaren eta berau ikastetxeetara zabaltzeko “Oñatiera ikasgelan” izeneko egitasmoen helburua.

“Ingo xonau!” egitasmoaren garapena, hasieratik, hainbat fase izango zituen ibilbide bat bezala aurreikusi genuen, ezinezkoa baitzen egin beharreko guztia batera egitea. 2019an hasitako egitasmo hark dagoeneko hainbat emaitza eman ditu, eta gaur egun esan dezakegu erreferentzia ari dela bihurtzen hitanoa bultzatu nahi duten beste batzuentzat.

Aurtengoa egitasmoaren 5. urtea da, beraz, eta 2023 urterako aurreikusitako lanak, aurreko urteetan egin izan dugun moduan, Badihardugu elkartearekin lankidetzan egingo ditugu. Alde bietan komenigarritzat jotzen dute proiektuak garatzeko elkarlanean aritzea, eta horretarako Udalaren eta Badihardugu elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren proposamena aurkeztu du euskara teknikariak.

Hitzarmena gauzatzeko, bi aldeek honako klausula hauek adostu dituzte:

Klausulak

LEHENENGOA. Badihardugu Euskara Elkarteak konpromisoa hartzen du “Ingo Xonau!” eta “Oñatiera ikasgelan” proiektuekin lotuta 2023rako zehaztutako lan hauek aurrera eramateko eta 2023. urtea amaitu aurretik bukatzeko: Ingo Xonau! proiektuaren 5. faseko lanak (2023*)

- Oñatiko hika ikasteko Appa Hi! aplikazioa indartzeko eta osatzeko, lehiaketatxo bat prestatzea

- Hitanoaren erabilera sustatzeko II. Hika Eguna antolatzea

- Oñatiko ikastetxeetan hika praktikatzeko proiektuaren jarraipena egitea

Oñatiera ikasgelan proiektuaren 2. faseko lanak (2023*)

- Ikastetxeetan oñatiera erakusteko materiala sortzea: 30 fitxa pedagogiko

*Egin beharreko lanen zehaztasunak Oñatiko Udalari helarazitako txostenetan agertzen dira.

BIGARRENA. Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du Badihardugu Euskara Elkarteak 2023. urtean “Ingo Xonau!” eta “Oñatiera ikasgelan” proiektuekin lotuta egingo dituen lanak diruz laguntzeko, guztira 9.000€-ko zenbatekoarekin (aurrekontuko kodea: 5228).

HIRUGARRENA. Oñatiko Udalak bi alditan egingo dio ordainketa Badihardugu Euskara Elkarteari: hitzarmen hau sinatzean % 60 (5.400 €) eta lanak amaitzean gainerakoa (3.600 €).

Gaia aztertu ondoren, Euskara-Hezkuntza Batzordeak aldeko irizpena eman du. Horrenbestez, euskara-teknikariak egindako proposamena kontuan hartua, Euskara-Hezkuntza Batzordeak proposatzen du:

.- Ingo Xonau! eta Oñatiera ikasgelan egitasmoaren barruan 2023an egingo diren lanak onartzea

.- Egitasmoa garatzeko eta gauzatzeko laguntzeko, Udalaren eta Badihardugu elkartearekin artean hitzarmena sinatzea.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

22.3 artikulua: “Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

C) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo behar bezala justifikatutako eta deialdi publikoa zailtzen duten bestelako diru-laguntzak.”

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztapenak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du: *“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da. 2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Azaldutakoagatik, eta euskara-hezkuntza batzorde informatiboaren onetsiarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalaren eta Badihardugu Euskara Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dagoen zirriborro dokumentuaren arabera. Hitzarmenak elkarteari dirulaguntza zuzena emateko hitzarmen arautzailea barne hartzen dut. Dirulaguntza hori Oñatiko Udalaren 2023ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

Bigarrena.- Hitzarmen honek 2023 ekitaldirako iraupena izango du, eta igarotan, ondorioz gabe geratuko da automatikoki, isilbidezko luzapenik gabe.

Hirugarrena.- Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea (9.000,00 €), 2023ko udal aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura (aurrekontuko kodea: 5228), kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

Laugarrena.- Oñatiko Udalak bi alditan egingo dio ordainketa Badihardugu Euskara Elkarteari: hitzarmen hau sinatzean % 60 (5.400 €) eta lanak amaitzean gainerakoa (3.600 €). Elkarrekin jarduera egin ondoren zuriak aurkeztu beharko du. Dirulaguntzaren zuriak Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, euskara-hezkuntza batzorde informatiboaren irizpena eman ondoren.

21

Bostgarrena.- Dirulaguntza zuzen hau, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Seigarrena.- Euskara teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta diruzainari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Bederatzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta euskara-hezkuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

9.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

Ez daude.

10.- 2023ko apirilaren 22tik 2023ko maiatzaren 18ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 578 zenbakitik 690 zenbakira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

11.- 2023ko Toki Gobernu Batzordeen akten berri ematea (11., 12 eta 13. saioak).

Toki gobernuko batzordeen 11. (2023/04/20koa), 12. (2023/04/27koa) eta 13. (2023/05/11koa) saioen akten berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

12.- 2022ko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.

2023ko maiatzaren 2ko Ogasun batzordean txosten honen berri eman zen, Kontuhartzaileak, Paskul Elustondo Darpon jaunak, ziurtatzen duenez:

“3.- 2022ko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostena

Kontu-hartzaileak laburpen txostena azaltzen du, zeina batzordekideei banatu zaien. Asmoa da, horren berri maiatzeko Osoko Bilkuran ematea.

“

2022ko FINANTZA KONTROLAREN ETA KONTU-HARTZE EGINKIZUNAREN LABURPEN TXOSTENA

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena. 15, 28 eta 37.artikuluak.

AURREKO OHARRAK

Dokumentu hau Osoko Bilkurari bidaliko zaio 32/2018 Barne Kontrolaren Foru Dekretuaren (BKFD) 37 artikuluak dioena betez. Dokumentu honetan 2022ko ekitaldiko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunen informazio esanguratsuena jasotzen da, eta kudeaketa organoei eta Alkateari bidali zaie, hala dagokionean, BKFDan araututako izapidetzearen arabera. Tokiko sektore publikoko erakundeen kontabilitate informazioa eta kontuen auditoretza txostenak egoitza elektronikoko korporatiboetan argitaratu beharko dira.

Oñatiko Udal Aurrekontuko AURREKONTUAK GAUZATZEKO ARAUAN 5. eta 6. artikuluetan jasotzen da funtzio ikuskatzailea ikuskatze-mugatu bidez egingo dela eta ondoren, kontrol finantzari osoa egingo dela; 2022an mota ezberdinetako 21 espedienteri egin zaie kontrol osoa.

TXOSTENAREN LEHEN ZATIA

Kontu-hartzaileak Osoko Bilkurari toki erakundeko Alkateak eta Osoko Bilkurak egindako banaketen edo finantza zaintzaren arloan eskudun den sailak egindako txostenen aurka hartutako erabaki guztien urteko txosten bat eta sarreraren arloan hautemandako anomalia nagusien laburpen bat bidaltzea derrigorrezkoa izanik,

Gainera egindako txostenen zerrenda sartu behar dela kontuan hartuz, kontu-hartze eginkizuna derrigorrezkoa denean eta egin ez denean,

Derrigorrezkoa izanik, halaber, Kontu-hartzaileak urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari informazio hori bidaltzea, toki erakundearen Osoko Bilkura informatu ondoren, kontu orokorra egiten denean,

Adierazitako informazioaren zerrenda egin da, 2022 ekitaldiari dagokiona, udal Kontu-hartzailetzan dagoen datuen arabera:

A. ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK

EBAZPENA EMAN DUEN ORGANOA	GAIAREN AZALPENA(ESPEDIENTEA)	FISKALIZ. TXOSTENAREN ZK.	FINANTZA ZAINZAKO ORGANOAREN TXOSTENA
TGB 2022-04-07	Argindar horniduraren kontratua	2022/1	Kontu-hartzailetza-Eragozpen-txosten entengarria

B. EZ ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK

EBAZPENA EMAN DUEN ORGANOA	GAIAREN AZALPENA(ESPEDIENTEA)	FISKALIZ. TXOSTENAREN ZK.	FINANTZA ZAINZAKO ORGANOAREN TXOSTENA

EZ DAGO

C. KONTUHARTZE EGINKIZUNA EZ BETETZEA

ONARTZEKO EDO ORDAINTZEKO EBAZPENAREN EMAN DUEN ORGANOA	GAIAREN AZALPENA(ESPEDIENTEA)	KONTU-HARTZE EGINKIZUNA BETETZEAREN TXOSTENAREN ZK. EZ	KONTU-HARTZE EGINKIZUNA BETE GABE HARTUTAKO EBAZPENAK

EZ DAGO

D. SARREREN ARLOKO ANOMALIA NAGUSIAK EZ DAGO.

E. FROGATU BEHARREKO ORDAINKETEN ETA KUTXA FINKOKO AURRERAKINEN KONTU FROGAGARRIAK
Frogatu beharreko kontuak eta kutxa finkoko aurrerakinak kontrolatzean lortutako emaitzak, honako hauek dira: EZ DAGO ERAGOZPENIK

TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA

Alkatearen bitartez 2022 ekitaldian egindako finantza kontroleko eta kontu-hartze eginkizuneko jarduketek sortutako emaitzarik esanguratsuenak dakartzan urteko txostena Osoko Bilkurari bidaltzea derrigorrezkoa izanik, Adierazitako informazioaren zerrenda egin da, 2022 ekitaldiari dagokiona, udal Kontu-hartzailetzan dagoen datuen arabera:

A. OHARRAK KONTU-HARTZE EGINKIZUNA BETETZEAN

Aurreko fiskalizazioa eta kontu-hartzea gauzatzean egindako oharretan azpimarratu beharreko intereseko alderdiak: Begira ondoren datorren “D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK”.

B. FINANTZA KONTROL IRAUNKORRA

Finantza kontroleko planean hautatutako jarduketan ondorioz egindako finantza kontrol iraunkorraren txostenetan ez da akats esanguratsurik antzeman.

C. AUDITORETZA Auditoretza lanak egiteko, ATTEST enpresa kontratatu da, beheko taulan agertzen den bezala.

Auditoretza hauek egin dira 2022 ekitaldian:

	KONTUENAK	BETETZEARENAK	OPERATIBOA
OÑATIKO UR JAUZIAK SA (ATTEST)	BAI/Aldeko iritzia	EZ	EZ
ONARGI SL (ATTEST)	BAI/Aldeko iritzia	EZ	EZ

Finantza kontroleko planean hautatutako jarduketan ondorioz egindako auditoretza txostenetan eta 2022 ekitaldian, OÑATIKO UR JAUZIAK SA eta OÑARGI SL sozietate publikoaren egindako auditoretza txostenetan ez da akats esanguratsurik antzeman.

D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK:

2022 EKITALDIARI DAGOKION KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN “VI.- ARRISKUEN EBALUAZIO ETA AZTERKETA GASTUETAN” atalaren lehenengo paragrafoak zera dio: “...kontrol finantzarioen plangintza egokia egin ahal izateko eta bere eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den arriskuen ebaluazio eta azterketa” komeni dela.

Hirugarren paragrafoak zera dio: “...plangintza egoki bat egiteko tresna izateaz gain, arau-hauste posibleei AURREA hartzeko ere balioko du, edo baita kudeaketa onaren printzipioetan egon daitezkeen hutsuneei AURREA hartzeko ere.”

Barne fiskalizazio osoaren lehen helburua da arau-hauste eta hutsuneei AURRE hartzea Planaren XI. atalaren bigarren paragrafoak dioen bezala: “...Modu berean, berehalako jardunbide zuzentzailea aplikatuz zuzendu

beharreko gabeziak adieraziko dira.” Beraz, gabeziak ezingo balira saihestu, eta gabeziak topatuz gero, berehala zuzendu beharko lirateke.

Oñatiko Udaleko barne fiskalizazioak bi jardunbide horiek jarraitu ditu. Txosten honen **TXOSTENAREN LEHEN ZATIAREN A atalean ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK** azpiatalean eragozpen-ohar baten berri ematen da. **Gainontzean**, Laburpen Txostenean beste gabezia esanguratsurik ez aurkitzearen arrazoia bakarra honakoa da:

- Barne kontrol guztian dagoen urrats garrantzitsuena aurretiazko fiskalizazio sistematikoa bat egitea da, hura baita garai egokia akats edo gabezi esanguratsuak antzeman eta, kudeaketa organoarekin eta Alkatearekin elkarlanean, berehalako zuzenketa-ekintzak gauzatzeko. Aldian-aldian, barne kontroleko irizpideen berri ematen zaie organo kudeatzaileei eta politikariei. Oñatiko Udalaren kasuan, fiskalizazio mugatuko akats/gabezi guztiak akordioa hartu aurretik zuzentzen dira. Finantza Kontrolerako Urteko Planean jasotako kontrol finantzarioak eta osoko fiskalizazioek akats oso txikiak (formazkoak) antzematen ditu, eta horiek ere, berehala zuzentzen dira, kudeaketa organoarekin elkarlanean. Beraz, ekintza plana onartzerako, zuzentze-ekintzak gauzaturik izaten dira.

Hala ere, Udalaren eraginkortasuna hobetze aldera, 2022 ekitaldian, **HONAKOA EGITEA AURREIKUSTEN DA:**

1.- Idazkaritza, kudeaketa departamentuekin eta Ogasuneko batzordeburuarekin batera, kontratuen azterketa bat egitea, batez ere, luzatzen diren kontratuen arrazoiketa berraztertze eta zentzu honetan irizpideak jartzeko.

2.- Dirulaguntzen eskumenen berrantolaketa aztertzea, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

3.- Azkenik, MINHAP-ek Oñatiko Udalari erantsi zion Suradesa enpresaren dokumentazio ekonomiko-aurrekontukoa tutoretza-organora bidaltzeko ardua. Normalki, Sareko sistema informatikoko Gunea bitartez bidali beharrekoa da. 2021 urtean, Suradesak, hainbat kasutan, berandu bidali dio Udalari bere informazioa (Berankortasun txostena, Exekuzioa...). Udalaren dokumentazio ezin da itxiztat eman eta Gunea bidez tutoretza organora bidali, aurrez, S.Martin Egoitzarena eta Suradesarena itxi gabe. Hala ere, Suradesaren atala daturik gabe itxi izan da, Udalaren eta SMartin Egoitzarenak bidali ahal izateko Gunea bidez. Kasu hauetan bidalketa ez-onartua eta itzulua izan da. Ondoren, Suradesaren informazioa jasotzean, bidali da berriz, baina kasu batzuetan berandu, epez kanpo.

Oñati, 2023ko apirilaren 13

KONTU-HARTZAILEA:

PASKUAL ELUSTONDO DARPON

“

Ogasun Batzordea jakinean geratzen da, eta Osoko Bilkurara igortzen da, jakinean gera dadin.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

24

13.- 2022ko ekintza planaren berri ematea.

2023ko maiatzaren 2ko Ogasun batzordean txosten honen berri eman zen, Kontuhartzaileak, Paskual Elustondo Darpon jaunak, ziurtatzen duenez:

“4.- 2022ko ekintza plana

Kontu-hartzaileak Alkateak prestatutako ekintza-plana azaltzen du, zeina batzordekideei banatu zaien. Asmoa da, horren berri maiatzeko Osoko Bilkuran ematea.

2022ko EKINTZA PLANA

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenaren 38. artikulua.

PROZEDURA

Toki erakundeko Alkateak ekintza plan hau formalizatzen du 2022ko finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko Laburpen Txostenean ageri diren ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak zehazteko.

Alkateak barne kontrola egitean agertutako ahulezien zuzenketa-egoeraren berri emango dio Osoko Bilkurari, organo honek aldizkako jarraipena egin dezaion Udalaren ekonomiaren eta finantzen kudeaketa hobetzeko ezarritako neurri zuzentzaileei.

Horretarako, honako urratsak eman dira:

1.- Goian aipatutako Laburpen Txosten hori Osoko Bilkurari igorriko zaio, eta 2023ko maiatzeko Osoko Bilkuran jakinean geratuko da.

2.- Osoko Bilkura horretarako, Oñatiko Udaleko Alkateak 2022ko Ekintza Plan hau egin du, eta Kontu-hartzailearen Laburpen Txostenaren “TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA- D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRA” atalean adierazitakoarekin bat egiten du, Ekintza Planean sartuz:

“D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK:

2022 EKITALDIARI DAGOKION KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN “VI.- ARRISKUEN EBALUAZIO ETA AZTERKETA GASTUETAN” atalaren lehenengo paragrafoak zera dio: “...kontrol finantzarioen plangintza egokia egin ahal izateko eta bere eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den arriskuen ebaluazio eta azterketa” komeni dela.

Hirugarren paragrafoak zera dio: “...plangintza egoki bat egiteko tresna izateaz gain, arau-hauste posibleei AURREA hartzeko ere balioko du, edo baita kudeaketa onaren printzipioetan egon daitezkeen hutsuneei AURREA hartzeko ere.”

Barne fiskalizazio osoaren lehen helburua da arau-hauste eta hutsuneei AURRE hartzea Planaren XI. atalaren bigarren paragrafoak dioen bezala: “...Modu berean, berehalako jardunbide zuzentzailea aplikatuz zuzendu beharreko gabeziak adieraziko dira.” Beraz, gabeziak ezingo balira saihestu, eta gabeziak topatuz gero, berehala zuzendu beharko liriteke.

Oñatiko Udaleko barne fiskalizazioak bi jardunbide horiek jarraitu ditu. Txosten honen TXOSTENAREN LEHEN ZATIAREN A atalean ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK azpiatalean eragozpen-ohar baten berri ematen da. Gainontzean, Laburpen Txostenean beste gabezia esanguratsurik ez aurkitzearen arrazoia bakarra honakoa da:

- Barne kontrol guztian dagoen urrats garrantzitsua aurretiazko fiskalizazio sistemako bat egitea da, hura baita garai egokia akats edo gabezi esanguratsuk antzeman eta, kudeaketa organoarekin eta Alkatearekin elkarlanean, berehalako zuzenketa-ekintzak gauzatzeko. Aldian-aldean, barne kontroleko irizpideen berri ematen zaie organo kudeatzaileei eta politikariei. Oñatiko Udalaren kasuan, fiskalizazio mugatuko akats/gabezi guztiak akordioa hartu aurretik zuzentzen dira. Finantza Kontrolerako Urteko Planean jasotako kontrol finantzarioak eta osoko fiskalizazioek akats oso txikiak (formazkoak) antzematen ditu, eta horiek ere, berehala zuzentzen dira, kudeaketa organoarekin elkarlanean. Beraz, ekintza plana onartzerako, zuzentze-ekintzak gauzaturik izaten dira.

Hala ere, Udalaren eraginkortasuna hobetze aldera, 2022 ekitaldian, HONAKO EGITEA AURREIKUSTEN DA:

1.- Idazkaritza, kudeaketa departamentuekin eta Ogasuneko batzordeburuarekin batera, kontratuen azterketa bat egitea, batez ere, luzatzen diren kontratuen arrazoiketa berraztertze eta zentzu honetan irizpideak jartzeko.

2.- Dirulaguntzen eskumenen berrantolaketa aztertzea, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

3.- Azkenik, MINHAP-ek Oñatiko Udalarari erantsi zion Suradesa enpresaren dokumentazio ekonomiko-aurrekontukoa tutoretza-organora bidaltzeko ardura. Normalki, Sareko sistema informatikoko Gunea bitartez bidali beharrekoa da. 2021 urtean, Suradesak, hainbat kasutan, berandu bidali dio Udalarari bere informazioa (Berankortasun txostena, Exekuzioa...). Udalaren dokumentazio ezin da itxiztat eman eta Gunea bidez tutoretza organora bidali, aurrez, S.Martin Egoitzarena eta Suradesarena itxi gabe. Hala ere, Suradesaren atala daturik gabe itxi izan da, Udalaren eta SMartin Egoitzarenak bidali ahal izateko Gunea bidez. Kasu hauetan bidalketa ez-onartua eta itzulia izan da. Ondoren, Suradesaren informazioa jasotzean, bidali da berriz, baina kasu batzuetan berandu, epez kanpo.

Osoko Bilkurari Laburpen Txostena bidali eta 3 hilabete igaro baino lehen, organo kontu-hartzaileari bidali behar zaio Ekintza Plan hau; maiatzeko Osoko Bilkurari bidaliko zaio.

Oñati, 2023ko apirilaren 13a

Alkatearen sinadura

IZARO ELORZA ARREGUI

“

Ogasun Batzordea jakinean geratzen da, eta Osoko Bilkurara igortzen da, jakinean gera dadin. “

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

14.- 2022ko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.

2023ko maiatzaren 2ko Ogasun batzordean txosten honen berri eman zen, Kontuhartzaileak, Paskul Elustondo Darpon jaunak, ziurtatzen duenez:

“5.- 2022ko ekintza planaren egokitasun-txostena

Kontu-hartzaileak egokitasun txostena azaltzen du, zeina batzordekideei banatu zaien. Asmoa da, horren berri maiatzeko Osoko Bilkuran ematea.

2022ko EKINTZA PLANAREN EGOKITASUN-TXOSTENA
EGILEA: KONTU-HARTZAILEA

ZUZENBIDETOKO OINARRIAK

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenaren 38. artikulua.

PROZEDURA

Toki erakundeko Alkateak, 2023-04-17ko datuz, Ekintza Plana formalizatu du 2022ko finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko laburpen txostenean ageri diren ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak zehazteko.

Laburpen txostena Osoko Bilkurari igorriko zaio, 2023ko maiatzeko bilkuran jakinean geratzeko.

Laburpen Txostena Osoko Bilkurari bidali zenetik 3 hilabete igaro gabe, Ekintza-Plana organo kontu-hartzaileari bidali behar zaio; jadanik jaso du eta Egokitasuna txosten hau egiteko moduan da.

Kontu-hartzailearen iritziz, Barne Kontrol egoki baten oinarria aurretiazko fiskalizazioa da, eta unean uneko ahulezi eta gabezien berehala erantzutea.

EGOKITASUNARI BURUZKO TXOSTENA:

Kontu-hartzaile honek Ekintza Planaren TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA-D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRA atalean aipatutakoa gogoratu nahi du, berak egindako Laburpen Txostenarekin bat datozenak:

“ D. LABURPEN TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK:

2022 EKITALDIARI DAGOKION KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN “VI.- ARRISKUEN EBALUAZIO ETA AZTERKETA GASTUETAN” atalaren lehenengo paragrafoak zera dio: “...kontrol finantzarioen plangintza egokia egin ahal izateko eta bere eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den arriskuen ebaluazio eta azterketa” komeni dela.

Hirugarren paragrafoak zera dio: “...plangintza egoki bat egiteko tresna izateaz gain, arau-hauste posibleei AURREA hartzeko ere balioko du, edo baita kudeaketa onaren printzipioetan egon daitezkeen hutsuneei AURREA hartzeko ere.”

Barne fiskalizazio osoaren lehen helburua da arau-hauste eta hutsuneei AURRE hartzea Planaren XI. atalaren bigarren paragrafoak dioen bezala: “...Modu berean, berehalako jardunbide zuzentzailea aplikatuz zuzendu beharreko gabeziak adieraziko dira.” Beraz, gabeziak ezingo balira saihestu, eta gabeziak topatuz gero, berehala zuzendu beharko liriteke.

Oñatiko Udaleko barne fiskalizazioak bi jardunbide horiek jarraitu ditu. Txosten honen TXOSTENAREN LEHEN ZATIAren A atalean ETETEKO ERAGOZPENEN AURKAKO EBAZPENAK azpiatalean eragozpen-ohar baten berri ematen da. Gainontzean, Laburpen Txostenean beste gabezia esanguratsurik ez aurkitzearen arrazoia bakarra honakoa da:

- Barne kontrol guztian dagoen urrats garrantzitsuena aurretiazko fiskalizazio sistematikoko bat egitea da, hura baita garai egokia akats edo gabezi esanguratsuak antzeman eta, kudeaketa organoarekin eta Alkatearekin elkarlanean, berehalako zuzenketa-ekintzak gauzatzeko. Aldian-aldean, barne kontroleko irizpideen berri ematen zaie organo kudeatzaileei eta politikariei. Oñatiko Udalaren kasuan, fiskalizazio mugatuko akats/gabezi guztiak akordioa hartu aurretik zuzentzen dira. Finantza Kontrolerako Urteko Planean jasotako kontrol finantzarioak eta osoko fiskalizazioek akats oso txikiak (formazkoak) antzematen ditu, eta horiek ere, berehala zuzentzen dira, kudeaketa organoarekin elkarlanean. Beraz, ekintza plana onartzerako, zuzentze-ekintzak gauzatu izaten dira.

Hala ere, Udalaren eraginkortasuna hobetze aldera, 2022 ekitaldian, HONAKOA EGITEA AURREIKUSTEN DA:

1.- Idazkaritza, kudeaketa departamentuekin eta Ogasuneko batzordeburuarekin batera, kontratuen azterketa bat egitea, batez ere, luzatzen diren kontratuen arrazoiketa berraztertze eta zentzu honetan irizpideak jartzeko.

2.- Dirulaguntzen eskumenen berrantolaketa aztertzea, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

3.- Azkenik, MINHAP-ek Oñatiko Udalari erantsi zion Suradesa enpresaren dokumentazio ekonomiko-aurrekontukoa tutoretza-organora bidaltzeko ardura. Normalki, Sareko sistema informatikoko Gunea bitartez bidali beharrekoa da. 2021 urtean, Suradesak, hainbat kasutan, berandu bidali dio Udalari bere informazioa (Berankortasun txostena, Exekuzioa...). Udalaren dokumentazio ezin da itxiztat eman eta Gunea bidez tutoretza organora bidali, aurrez, S.Martin Egoitzarena eta Suradesarena itxi gabe. Hala ere, Suradesaren atala daturik gabe itxi izan da, Udalaren eta SMartin Egoitzarenak bidali ahal izateko Gunea bidez. Kasu hauetan bidalketa ez-onartua eta itzulia izan da. Ondoren, Suradesaren informazioa jasotzean, bidali da berriz, baina kasu batzuetan berandu, epez kanpo.”

- Beraz, Kontu-hartzaileak uste du plan hau EGOKIA DELA adierazitako finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko Laburpen Txostenean adierazitakoa gauzatzeko.

Oñati, 2023ko apirilaren 17a

KONTU-HARTZAILEA:

PASKUAL ELUSTONDO DARPON

“

Ogasun Batzordea jakinean geratzen da, eta Osoko Bilkurara igortzen da, jakinean gera dadin.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

15.- Galderak eta eskaerak.

Ez daude.

Herritar batzuk EH Bilduko zinegotziei loreak oparitzen diete.

Elorza andeak udalbatzako lehendakari izenean eskerrak eman die zinegotzi guztiei osoko bilkuran egon den errespetuagatik eta guztie zorte ona opa die.

Besterik ezean, 18:45ak zirenean, alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan